

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Babes Zibileko Batzordeak uholdeei aurre egiteko San Adrian eta Sunbillako udal jarduketa planen homologazioa onartu du

Aldeko irizpena eman du 112 SOS Nafarroa Larrialdiak Kudeatzeko Zentroa arautuko duen Foru Dekretuaren zirriborroari buruz

Asteartea, 2018.eko azaroak 27

Nafarroako Babes Zibileko Batzordeak, Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilari María José Beaumont buru zuelarik, Sunbilla eta San Adriango udalek uholde-arriskuari aurre egiteko abian dituzten jarduketa-planen homologazioa onartu du gaur eguerdian egindako bileran.



Beaumont buru izan duen Batzordearen bileraren une bat.

Halaber, Nafarroako Jauregian izandako bilera horretan, Batzordeak aldeko irizpena eman du 112 SOS Nafarroa Larrialdiak Kudeatzeko Zentroa arautuko duen Foru Dekretuaren zirriborroari buruz.

Nafarroako Babes Zibileko Batzordean ordezkaturata daude Estatuko Administrazio Orokorra, Foru Komunitateko Administrazioa eta Nafarroako Toki Erakundeak, Beaumont kontseilariaren abenduaren 22ko 139/2017 Foru Aginduan jasotakoaren arabera.

Informazioa, alerta eta esku hartzea

Uholde-arriskuari aurre egiteko udal jarduketa-planak era horretako larrialdien aurrean jokatzeko informazio, alerta eta esku-hartze dispositibo iraunkor eta eguneratua ezartzen duten toki mailako tresnak dira. Herritarrak babestu eta, ahal den neurrian, kalteak saihesti edo mugatzea dute helburu.

Besteak beste, planek uholdeetan jarraitu beharreko esku-hartze prozedurak zehazten dituzte, baita toki erakundearen eta SOS Nafarroaren artean finkatu beharreko alerta eta komunikazio prozedurak ere. Plan hauek udalbatzarretan

onartu eta Babes Zibileko Batzordeak homologatzen ditu, Nafarroako Gobernuaren Uholdeei buruzko Plan Bereziarekin bat datozela egiaztatu ondoren.



Batzordeko kideak, Nafarroako Jauregian.

Batzordeak, San Adrian eta Sunbillako udalek uholde-arriskuari aurre egiteko abian dituzten udal jarduketa-planak homologatzeari ekin dio, San Adriango Udaltzaingoko buru José Benito López eta Sunbillako alkate Amets Inda tarteko zirela.

Bileran, halaber, 112 SOS Nafarroa Larrialdiak Kudeatzeko Zentroa erregulatuko duen Foru Dekretuaren zirriborroa eman da ezagutzera. Indarrean dagoen funtzionamendu-araudia maiatzaren 4ko 150/1998 Foru Dekretuaren bidez onartu zen, eta ondorioz, nahitaezkoa da horren aldaketa egitea, Nafarroako Babes Zibil eta Larrialdietako Arretari buruzko ekainaren 1eko 8/2005 Foru Legea egokitzeko.

Azken urteotako esperientziak 112 SOS Nafarroa Larrialdiak Kudeatzeko Zentroaren funtzionamendu egokia berresten duen arren, zentroari esleitutako eginkizunak eguneratu nahi dira, larrialdi egoera guztiei eraginkortasunez erantzungo zaiela bermatzeko, eguneko hogeita lau orduetan eta urteko egun guztietan, pertsonalaren funtzionamendu espezifikoari buruzko araubidea erregulatu eta esparru honetan izandako aldaketetara egokitzeaz gain.